



**2016KO ABENDUAREN 22KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko abenduaren hogeita bian, arratsaldeko hiruretan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2016ko abenduaren 2an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 103 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA MILA LAUREHUN ETA BAT EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (171.401,74 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 15-01-012 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako baja ematea azaroko hilabetetik, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izategatik.
- 16-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako baja ematea abenduko hilabetetik, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izategatik.
- 15-01-010 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako baja ematea urriko hilabetetik, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izategatik.
- 14-01-011 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea abenduko hilabetetik, onuradunaren heriotzarengatik.



- 14-01-009 zbk.du esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea urriko hilabetetik, onuradunaren diru sarrerak aldatu direlako.
- 16-01-016 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 49,95 €ko diru laguntza eta alokairu gastuetarako hilean 135 €ko diru laguntza ematea azarotik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %54a da.
- 16-01-017 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 83,25 €ko diru laguntza eta alokairu gastuetarako hilean 220,50 €ko diru laguntza ematea abenduan. Ematen zaiona eskatutakoaren %90a da.

- Orobione jubilatu eta pentsiodunen elkartea.-

2016 urteari dagokion diru laguntzaren bigarren zatia onartzea, honako xehetasunaren arabera:

- Urteko ekitzen garapenerako: 3.808,00 €
- Oinarrizko egituraren funtzionamendurako: 1.250,00 €

- Gizarte zerbitzuetako entitateei diru laguntzak.-

Gizarte zerbitzuetako jarduerengatik, 2016 urteari dagozkion diru laguntza hauek ematea:

Entitatea	Zenbatekoa
Odol emaileak	1.317 €
Gurutze gorria	3.510 €
Gizakia helburu	1.100 €
Nagusilan	51,95 €
Azki, emakumeen taldea	1.000,00 €

IV.- ETXEBIZITZA ETA EKONOMIA JARDUERAKO LAGUNTZAK.-

Eguberrien inguruan eta kaleko argiteria jarduera aurrera eramateko, Lazkaon Lazkaoko Merkatarien Elkartearekin hitzarmena izenpetu da. Hitzarmen horren baitan, Udalak ZORTZI MILA ETA BOSTEHUN EURO (8.500 €)ko diru laguntza ematea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoarekin, proposatutako diru laguntza onartzea erabakitzen du.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

- Kultura taldeei diru laguntzak.-

Kultur jarduerak burutzeagatiko 2016 urteko diru laguntza hauek onartzea:

TALDEA	ZENBATEKOA
--------	------------



Oin Arin dantza taldea	12.338,34 €
Kantaka abesbatza	2.047,09 €
Antzar Gazteak txistulariak	2.214,57 €
Lazkao abesbatza	600,00 €
Jundajo txaranga	2.800,00 €
GUZTIRA	20.000,00 €

- Zawopi Elkartea.-

2016ko jaiotza biziduna, errege kabalgata eta Astotxo jardueren antolaketarako 2.500 €ko diru laguntza aurreratzea.

- Antsoategi Elkartea.-

Astotxo Eguneko jardueraren antolaketarako 2.500 €ko diru laguntza aurreratzea.

VI.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara eta Hezkuntza Batzordetik aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartzen du: 2015-2016 ikasturtean euskarako eskoletan ibili diren ikasle lazkaotarrei diru laguntza ematea. Diru laguntza ematen zaien lagunak 11 dira eta ematen zaiena, guztira, 4.938 € da. Diru laguntzaren eskatzaile bati diru laguntza ez ematea erabaki da, baldintzak betetzen ez dituelako.

Diru laguntza hauek honetarako ezarrita dauden arauak betetzen dituzten eta horien arabera ematen dira. Diru laguntza hauen onuradunak, bere espedientean dagoen zereñdan jasotzen dira.

- San Benito Ikastola.-

Urruñako ikastolen aldeko jaialdia dela eta, 300 €ko diru laguntza onartzea.

- San Benito Ikastola.-

2016 urteari dagozkion jarduerengatiko diru laguntzaren bigarren zatia onartzea.

2016 urteari dagokion funtzionamendu gastuetarako diru laguntzaren bigarren zatia onartzea.

VII.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirol Batzordetik aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartzen ditu:

- Lazkaoko Antzar Korrikalariak.-

Lazkaoko Duetloi Eskolar probaren antolaketagaitik 290 €ko diru laguntza onartzea.

- Txindoki Atletismo Taldea.-

Jose txo Imazen oroimenezko XVI. Lasterketaren antolaketagaitik 700 €ko diru laguntza onartzea.

- GOROSKT skate taldea.-

Skate txapelketaren antolaketagaitik 550 €ko diru laguntza onartzea.

- Arrastaka mendi taldea.-

Ehun milak ultratarail probaren antolaketagaitik 400 €ko diru laguntza onartzea.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA